

# FRONTEAN BIZI ETA IDATZI

1936ko gerraren berri guda oinetatik eman zuen euskal emakume bakarra izan zen Cecilia G. de Gilarte. «Gaur kazetari sentitu naiz, inoiz baino gehiago», idatzi zuen euskal miliziek bota zuten pilotu alemanari eginiko elkarrizketaren kronikan.

// *Pantxike Agirre*

Aukera berriak zabaldu zizkien gerrak garaiko emakumeei, eta ardua politikoetan eta gerrako jardueretan ez eze bestelako arlotan ere murgildu ziren asko. Haien egitekoari buruzko eztabaida bazen, baina errepublikako urteetan hasitako bideari eutsi eta kementsu jarraitu zuenetako bat izan zen Cecilia Garcia de Gilarte (Tolosa 1919-1989).

1936 eta 1937. urteetan Gipuzkoan eta Bizkaian izaniko borrokek jarraitu zituen, euskal batailoien ondoan, eta Santanderrekoak (Espainia) gero. Haren kronikak *CNT Norte* egunkarian kaleratu ziren nagusiki, mugimendu anarkistari lotua baitzen oso gaztetatik. Hala ere, Gilarteren kazetari lana apenas ezagutu den, eta gerra amaituta erbestean idatzi zituen eleberriengatik gogoratzen du historiak.

Gerrako kronika haiek *Cecilia G. de Gilarte. Reporter de la CNT* liburuan berrargitaratu dira orain. Lehen pertsonan kontatuak dira, guda oinetatik, milizianoek urratsen atzetik, eta kazetari gisa ikus-

ten duena kontatzea helburu badu ere, garaipenaren itxaropena islatzen dute etengabe. Artikuluekin batera, Gilarteren biografia eta kontestu historikoa aztertu dituzte egileek, Sancho de Beurko elkarreko ikerlari Julen Lezamizek eta Guillermo Tabernillak.

«Garai hartan emakumeak nabarmentzen hasi ziren, nahiz eta frankismoak atzera isilarazi, eta emakume dezente aritu ziren argazkilari eta kazetari lanetan Espainiako gerran. Baina, iparraldeko frontean ibili zen bakarra Cecilia Gilarte izan zen; gerrako berriemailea izan zen. Horregatik nabarmendu nahi izan dugu haren lana», azaldu du Lezamizek.

Burgostik etorritako familia anarkistan hezi zen Gilarte, eta Juventudes Libertarias erakundean sartu zen. 1936ko udan, Irungo (Gipuzkoa) borroketan hil zen 17 urteko anaia, eta orduan, 20 urte baino ez zituela, hasi zen lehen gerra kronikak idazten; hasieran Errepublikako *Frente Popular* egunkarirako egin zuen, eta gero, Gipuzkoa erori eta familia Bizkaira joan zenean, *CNT Nortean* eman



**Erbestean.** Kazetari lanetan jarraitu zuen Cecilia G. de Gilartek Mexikon.

zuen Bizkaian eta Santanderren gertatzen zenaren berri.

Euzkadiko Disziplina Batailoari buruzko lan batean zebiltzala iritsi ziren Lezamiz eta Tabernilla Gilarteren kazetari lanetara. Izan ere, batailoi hartako komandante Amos Ruiz Giron Gilarteren senarra zen; frontean ezagutu zuten elkar eta ezkondu. Bizkaia erori eta

«Esaten zuen gerran idatzi zuela, baina alabek ere ez zekiten zehazki amak eginiko lana»

JULEN LEZAMIZ  
«CECILIA G. DE GILARTE. REPORTER DE LA CNT» LIBURUAREN EGILEETAKO BAT

## GERRA KRONIKAK

Gipuzkoako lehen borroketan idatzitako kronika da lehena, eta beste biak preso hartutako pilotu aleman bati eta soldadu italiar bati eginiko elkarrizketak.

### 1936ko irailaren 7a

«Naturak garaipena gurekin ospatu nahi balu bezala garbitu da zerrua eta eguzkia irten da borroka hau ikustera. Santa Barbaran dabilta artellerialariak. Zorte ona dute. Erreketeek Arritxolako base-rritik jaurtitzen zizkiguten bala zartatzaileak, baina nahikoa izan ziren lau tiro isiltzeko eta 'espainiako soldadu' ikaratuak aterarazteko. (...) Biba batek garaipenaren oihartzuna zabaldu zuen. Begi disdiratsuekin Buruntzara begira jarri dira. Fedea egiten du distira: Buruntza geurea izango da berehala! Laburtuz, gure aldean lauzauritu arin eta izugarrizko garaipena; itxaropena zabaldu zaigu, laster amaiera etorriko dela...».

### 1937ko urtarrilaren 12a

«Herri osoak eskatzen zuen Schmidt Karl Gustaven heriotza. Aurrez harridura eta beldurra zuela zeharkatu zuen Bilbo, asaldatu eta mendeku sentimenduz beteta zeuden herritarren artetik. Beharrezkoa zen harekin hitz egitea. Oroimenetik ezabatu ditut hori lortzeko izandako gorabeherak. Baina, inoiz ez dut ahaztuko gorputz osoan sentitzen nuen hotzikara, gauean fusil baten distira ikusten nuen bakoitzean, gelditze-ko aginduz bezala. Estatu bizidunak balira bezala, zurrun, zeuden zentinelak. Jakina zen alde horretatik ez nuela ezer lortuko. Bide ez hain ofizialetara eta arriskutsuagoetara jo beharra nuen. Ezin dut esan, niretzat gordeko dut.

Eta lortu nuen hitz egitea. Aleman bat da Schmidt. Ilehoria, kaoba eta platino artean. Masailezur sendoa, laukia. Begi urdinak, txikiak txerri txiki gorri batenak bezala. Ez du frantses ez espainieraz egiten. Ingelesa pixka bat. Horrela ulertu dugu. (...)

— Beldur izan zara?



**Agirre lehendakariarekin.** 1944an, Mexikon, kazetarien topaketa batean.

— Ez, baina uste nuen berehala hilko nindutela.

— Kostatu da hori eragozte. Zergatik egin duzu tiro metrailadoretik?

Ez du erantzun. Burua altxatu eta sabaira begiratu du. Badator zaintzailea. Elkarrizketa bukatu egin behar dut. Aitortzen dut irakurleek pentsatuko duten beldur naizela.

— Hilko naute? — Axolagabea dirudi, baina, hala ere, galderak hunkitzen du.

— Ez dakit. Baina ezagutu ere egiten ez dituen herritarrek hiltzeko eta samina zabaltzeko bere etxea eta herria uzten duenak...

Ez dakit ulertu didan. Erabateko ergelkeria islatzen dute bere begiek. Deseroso nago irteteen. Gerraren krudelkeriaz hitz egin nahi nuke, isurritako odolaz, gure heroismoaz...».

### 1937ko maiatzaren 4a

Ez du alemaniarrek duten harrotasuna eta irmotasuna. Ez hotz ez

gero, Frantziara joan zen Gilarte, eta handik Kataluniara. Asturiasen jarraitu zuen Amosek borrokan, baina ihes egitea lortu eta emaztearekin erbesteratu zen Mexikon.

«Kazetari eta idazle lanetan jarraitu zuen han, baina lanbide gisa aritu zen orduan artikulua idazten. Izquierda Republicana de Euzkadi alderdiarekin lan egin zuen Mexikon; ez zuen iragan anarkista aipatzen, esaten zuen gerran idatzi izan zuela, baina alabek ere ez zekiten zehazki amak eginikoa». *Euzko-Deya* eta *La voz de los vascos* egunkarietan idatzi zuen, besteak beste. 1964. urtean Tolosara itzuli zen, hura zen bere ametsa, baina Mexikoko egunkarietarako lanean jarraitu zuen. 1969an Espainiako Aguilas literatur saria irabazi zuen, Planeta saria izango zenaren aurrekoa.

Bai bere eleberri askok bai artikuluek ere autobiografiaren zantzuak dituzte, eta, konpromiso politikoaz gain, lanbide zuen kazetaritzarekiko kezka ere agertzen dute. Kronikak eta elkarrizketak gogoeta pertsonal anitzez janzen zituen, eta Schmidt Karl pilotu alemanari eginiko elkarrizketa da horren lekuko. Kazetari inoiz ez bezala sentitu zela aitortu zuen kronika hartan. «Espainian garrantzia bera dute kazetari izateak eta garbantzua saltzen ibiltzen denak», idatzi zuen sarreran. Ordura arteko lanen monotoniaz kezu zen, baina hegazkin faxisten lurreratzeari ekarri zuen borrokan lekuko izan eta hura kontatzeak inpresio hori aldatu zion: «Horren ondotik nire animoa edozein heroizitatetarako prest zegoen».

bero begiratzen dute. Egunotan preso hartu dituzten italiarrek nekearen sentipena azaltzen dute. Indarrrik gabe eta sinismenik gabe hitz egiten dute. Italia aldatuko den itxaropena ematen digu.

— Ni langilea naiz —esan digu— eta beti nago haien alde.

— Orduan zertara etorri zara langileak hiltzera?

— Nik ez nekien Espainiara nentorrenik. Ni gose nintzen, Italian urteak zirelako lanik gabe nengoela. (...)

— Orain, gorrien esku zaudela zer pentsatzen duzu?

— Nik beti pentsatzen dut hauekin —dio emaztearen eta bi semen argazkiak erakutsiz—. Hemen baleude, ni gorrien Espainian biziko nintzateke beti. Ni pobrea naiz.

Ez da beharrezkoa esatea. Ongi ikusten da argazkian. (...) Eta hala ere gizon hori *arrano beltz* bat da. Gerlari beldurgarri bat, esan dezagun. Espainiara etorri den Italia da. Espainian hiltzen den Italia, euren lurrean gosez ez hiltzeagatik. Esperientzia baten martiriak, itzultzen direnek aurrez eramanango dutelako tiraniarik onartzen ez duen herri baten seinalea, baduelako harrotasuna egokien deritzon esklabotza aukeratzeko.